

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Alkatearen 2023ko urtarrilaren 24 Ebazpena, eskola garraiorako norgehiagoka bidezko dirulaguntzen 2022-2023rako deialdia egiten duena

BDNS(Identif.): 672573

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/672573>).

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorri, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai, hemen: (www.infosubvenciones.es).

Lehenengoa. Onuradunak

Onuradunak udalerrian, gutxienez, urtebete errolatuta daramaten pertsonak izango dira, baldin eta ikastetxe ofizialetan derrigorrezko hezkuntza ez den ikasketak egiten ari badira.

Bigarrena. Xedea

Dirulaguntzaren helburua da udalerrian errolatutako pertsonak derrigorrezko hezkuntza baino goragoko ikasketak egin ditzaten sustatzea.

Honako ikasketa hauek egiteko emango da garraiorako dirulaguntza:

Batxilergoa.

Erdi mailako LH.

Hauek hartzen dituen goi mailako hezkuntza:

Unibertsitate ikasketak.

Goi mailako arte ikasketak.

Arte plastikoetako eta diseinuko goi mailako ikasketa profesionalak.

Goi mailako LH.

Goi mailako kirol ikasketak.

Ez dira diruz lagunduko hizkuntza eskoletako hizkuntza ikasketak; filologia ikasketetarako garraioa baino ez da diruz lagunduko.

Ez dira diruz lagunduko urrutiko ikasketak.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak udalbatzaren 2022ko urriaren 26ko bilkuran onetsi eta urtarrilaren 8ko 2/2021 ALHAOn argitaratu ziren.

Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntzek ezingo dute inola ere gainditu egindako gastuaren ehuneko 90, eta gehieneko irizpide hauek hartuko dira kontuan:

Araba barruko garraioa:

90,00 euro, baldin eta ikasketa zentroraino goizez edo arratsaldez joaten bada.

180,00 euro, baldin eta ikasketa zentroraino goizez eta arratsaldez joaten bada.

Ordutegi mistoa izanez gero (aurreko bien nahasketa) hiruko erregela egingo da dagokion dirulaguntza kalkulatzeko.

Arabatik kanpoko garraioa: erabiltzen den garraio bidearen arabera, dirulaguntza honako hau izango da:

Egindako gastuaren ehuneko 90, 600,00 euroko mugarekin, garraio publikoa erabiltzen bada.

150,00 euro, baldin eta ibilgailu pribatua erabiltzen bada.

Batzuetan garraio publikoan eta beste batzuetan ibilgailu pribatuan joanez gero, eskatzaileak bi aukeren artean aukeratu beharko du, udalak horietako bat baino ez baitu diruz lagunduko.

Arabatik kanpoko ikasketen kasuan, onuradunak egoitza duen udalerritik ikasketa zentroa dagoen hirira bitarteko bidaiak bakarrik lagundu ahal izango dira diruz, autobus/tren eta abarren aldaketak barne. Ez dira kontuan hartuko beste puntu batzuetan jatorria duten bidaiak.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak egingo dira oinarrien eranskinean ageri den ereduan, oinarrietan jasoriko dokumentazioa aurkeztu beharko da, eta aurkezteko epemuga 2023ko abuztuaren 1a izango da.

Seigarrena. Eskaerari erantsi beharreko agiriak

Ikasketak Araban egiten badira:

Ikasketak egiten diren ikastetxeko matrikularen fotokopia eta matrikula horren ordainagiria. Ikastetxeak matrikularik ematen ez badu, ikastetxeak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da. Ziurtagiri horretan, deialdiaren ikasturteari dagozkion ikasketak egin direla adierazi beharko da.

Diruz laguntzekoa den ikastaroaren urteko eskola ordutegia.

Diru sarrera egitea nahi den kontuaren erakundea eta IBANa eta titularra, dirulaguntzaren onuraduna ez bada.

Ikasketak Arabatik kanpo egiten badira:

Ikasketak egiten diren ikastetxeko matrikularen fotokopia eta matrikula horren ordainagiria.

Diruz laguntzekoa den ikastaroaren urteko eskola egutegia.

Garraio publikoan egindako bidaien zerrenda, eskatzaileak sinatua, egunak eta joan-etorriak zehaztuta, eta egindako gastuen egiaztagiria erantsita (fakturak, txartelak, etab.).

Zinpeko aitorpena, bidaiak ibilgailu partikularrean egin badira, eta kasu horretan baino ez.

Diru sarrera egitea nahi den kontuaren erakundea eta IBANa eta titularra, dirulaguntzaren onuraduna ez bada.

Dura, 2023ko urtarrilaren 24a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE